

Hondakinen kudeaketari buruzko hitzarmenaren emaitzak aurkeztu ditu Urbilek.

2009/11/25

Hondakinen Prebentzioari buruzko Europako Astea dela eta, Urbilek Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkor Sailarekin eta Mondragon Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenaren emaitzak kaleratu ditu. Hitzarmen hau Gipuzkoako merkatalgune handietako honakinen kudeaketari buruzkoa da.

Hitzarmenaren arduradunek egindako ikerketaren ondorioen berri eman dute.

Ekitaldian Carlos Ormazabal, Garapen Iraunkorrerako diputatua; Daniel Justel, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko irakasle-ikerlaria eta proiektuaren arduraduna, Eva Mendiluce, merkatalgunearen gerentea eta Alberto Prieto Eroski-Urbileko zuzendaria izan ziren.

Daniel Justelek proiektuaren helburua azaldu zuen: "sortutako hondakinak murriztu nahi dira, batez ere zabortegetara doazenak, prebentzio sistemen bidez bideratuz, berrerabiliz, birziklatuz eta konpostatuz. Horretarako denen konpromesua behar da klasifikazio zuzena egin eta beharrezko bitartekoetan inbertitzeko, merkatalgune guztiek hondakinak murriztu ditzaten".

Denek esan dute esperientzia positiboa izan dela eta baita harrigarria ere. Izan ere, aurten Urbilek sortzen dituen hondakinen %70a birziklatzea lortu da eta zabortegetara doazen hondakinen %23,8a jeitsi da, hondakin guztien murrizketa %9,1ekoa izan da, hauetako zenbait Elikagaien Bankura eta Emaus-era bideratu dira.

